

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

##### Garapenean Laguntzea

#### **Garapenerako lankidetzaren arloko hainbat urterako proiektuetarako diru-laguntzak emateko 2016ko deialdia**

2016ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Garapenerako lankidetzaren arloko hainbat urterako proiektuetarako diru-laguntzak emateko 2016ko deialdiaren oinarriak. Deialdia argitara ematen da, denek izan dezaten horren berri, hala xedatzen baitute Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek, lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoek eta Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzak — 2005eko ekainaren 17an eman zion hasierako onespena Gasteizko Udalbatzak, eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn (5. zk.) argitaratu zen—.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 29an

*Garapenean Laguntzeko zinegotzi ordezkaria*  
JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA

Zergatik garapenerako lankidetzarako diru-laguntzak emateko hainbat urterako deialdi bat?

Besteak beste, gidalerro hauek jasotzen ditu Gasteizko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren 2016-2019ko Gida-planak:

2. Lankidetzaren giza garapen lokaleko prozesu jarraituetan zentratzea.

6. Eraldaketarako nazioarteko baterako ekintzaren alorreko esperientzia eta estrategietan laguntzea, hiriko organizazioen inplikazio sendoa dakartelarik berekin.

2. gidalerroari dagokionez, planean zehazten da epe ertaineko (3 edo 4 urte) lankidetzaren ekintzak lehenetsiko direla, lurralde-eremu mugatuetan; pertsonen bizi-baldintzen hobekuntzan zentratutako garapena bilatzen duten ekintzak, giza eskubideak errespetatzen, pertsonen gaitasunak garatzen eta erabiltzaileei aukera gehiago ematen zaizkien ingurune soziala sortzea xede dutenak.

6. gidalerroari dagokionez, planean planteatzen da, alde batetik, gizartea eraldatzeko aliantzetan oinarritutako ikuspegi baterantz jotzea, hau da, lankidetzaren-organizazio tradizionalen, gure inguruko organizazio sozialen eta munduko beste leku batzuetako organizazioen arteko estrategia partekatuetara, eta bestetik, berriz, organizazio lokalak murgilduta dauden eta lankidetzaren metodologietara berrikuntzak dakartzaten beste lankidetzaren ekimen eta -dinamika batzuei — proiektu tradizionalen marko izatez estuetan nekez sartzen direnei— laguntza ematea.

Berariaz aurreikusia dago dago planean 2017an hainbat urterako proiektuen ziklo berri bati ekingo zaiola, eta aldeaz aurretik proiektuak identifikatzeko deialdi bat egingo dela zehazten da. Nahiz eta gida-planean —onartzen diren hainbat urterako proiektuen jarraitutasuna bermatze aldera— urtez urteko deialdi kateatuen sistema zehazten den, 2016-2019 urteetarako

konpromiso-kreditua jasotzen duen partida bat gaitu izanak aukera ematen du hainbat urterako proiektuetarako deialdiak sistema soilago eta eraginkorrago bat baliatuz martxan jarri jarraitutasun hori bermatzeko.

2016an Gasteizko Udalak dagoeneko onetsia du hainbat urterako proiektuak identifikatzeko deialdi bat, zeinek bi atal baititu: batetik, garapenerako lankidetzarako proiektuena, eta, bestetik, nazioarteko ekintzaren arloko estrategien eta garapenerako lankidetzako programa berritzaileena.

Horrenbestez, bi esparru horietako hainbat urterako proiektuak gauzatzeko diru-laguntzak ematea du helburu deialdi honek, eta, horregatik, bi atal bereizten dira:

L atala: giza garapen lokaleko proiektuak

N atala: nazioarteko ekintzaren arloko estrategiak eta garapenerako lankidetzako programa berritzaileak.

Bai identifikazioa Gasteizko Udalaren diru-laguntzaren kontura egin den proiektuak, bai zehazten diren betebeharrak betetzen dituzten beste batzuk aurkeztu ahal izango dira deialdi honetara.

Deialdi honen baitan onesten diren proiektuek Udalaren ekarpen ekonomikoa izango dute hiru urtez, 2017tik 2019ra bitartean —01.62.2391.48200 “Lankidetzarako diru-laguntzak” partidako konpromiso-kredituen kontura—.

Deialdira gehienez egingo den ekarpena hau izango da, urtez urte:

AURREKONTU-EKITALDIA	DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA
2017ko aurrekontua	1.200.000,00 euro
2018ko aurrekontua	1.200.000,00 euro
2018ko aurrekontua	1.200.000,00 euro
<b>Guztira</b>	<b>3.600.000,00 euro</b>

Onartzen diren proiektuen ardura duten entitateekiko hitzarmenen bitartez gauzatu da Gasteizko Udalaren lankidetzak, bertan zehaztuko baitira Gasteizko Udalaren ekarpenak —ezingo dira izan urtean ehun eta hogeita mila (120.000,00) eurotik gorakoak, proiektu bakoitzeko, L atalean, ezta ehun mila (100.000,00) eurotik gorakoak N atalean—, baita bi aldeen arteko lankidetzak-konpromisoak ere. Edonola ere, bigarren eta hirugarren urteko ekarpenak ordainduko badira, behar bezala garatu beharko dira proiektuak, eta zehazten diren betebeharrak bete.

Bai atal batean, bai bestean, garrantzi berezia emango zaie gida-planeko zeharkako gidalerroei:

1. Elkartasuna —topaketa gisa— eta herritartasun globala sustatzea.
6. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea

Horregatik, alde batetik, emakumeen ahalduzaren eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko helburuei erantzuten dieten ekintzak balioesten dira bereziki deialdi honetan, edo beren fase guztietan genero-ikuspegia benetan sartzan dutenak, eta bestetik, berriz, hiriko kolektiboak modu aktiboan inplikatzen diren proiektuak.

Oinarri hauek baliatuko dira diru-laguntzak emateko:

## Oinarriak

### 1. Deialdiaren Xedea

Garapenerako lankidetzaren arloko bi eratako jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak ematea da deialdi honen xedea:

L atala: esparru lokaleko giza garapenerako proiektuak, 2017, 2018 eta 2019 urteetan gauzatzekoak. Ekitaldi bakoitzean bederatziehun mila euro (900.000,00 euro) bideratuko dira atal horretara, eta urtean gehienez ehun eta hogeita mila euroko (120.000,00 euro) diru-laguntza eman ahal izango da eskabide bakoitzeko.

N atala: gizartea eraldatzeko nazioarteko ekintzaren alorreko estrategiak eta garapenerako lankidetzako programa berritzaileak, 2017, 2018 eta 2019 urteetan gauzatzekoak. Urtean hirurehun mila euro (300.000,00 euro) bideratuko dira atal horretara, eta urtean gehienez ehun mila euroko (100.000,00 euro) diru-laguntza eman ahal izango da eskabide bakoitzeko.

Nolanahi ere, atal horietako bateko diru-kopurua agortzen ez bada, beste ataleko eskabideei erantzuteko baliatu ahal izango da sobera geratutako kopurua, oinarri hauetan finkatzen diren betebeharrak betetzen eta puntuazioak lortzen direlarik.

### 2. Deialdira zeinek aurkez dezakeen proiekturik eta zeinek ez

2.1. Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundeek eskatu ahal izango dute diru-laguntza, baldin eta beren jarduerak deialdi honen xedearekin bat badatoz, eta Gasteizen duten presentzia eta jardunari eusten badiote.

2.2. Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du atal bakoitzean, nahiz eta, hasiera batean, bi ataletako batean bakarrik eskuratu ahal izango duen diru-laguntza, eta, beraz, zein lehenesten duen adierazi beharko duen.

2.3. Nolanahi ere, entitate bakoitzari gehienez diru-laguntza bat emateko irizpidea balitzen delarik, baldin eta ataletako batean soberakinik geratzen bada, eta horrek beste proiektu baterako diru-laguntza emateko aukera ematen badu, beste atalean dagoeneko diru-laguntza baduten entitateek aurkeztutako artetik baloraziorik gorenari jaso duenari esleitu ahal izango zaio.

2.4. L atalean, betetzen dituzten sei betebeharrak zehaztu eta dokumentatu beharko dituzte entitate eskatzaileek, deialdi honen 2. eranskinean adierazten direnen artetik. Eskabideak aurkezteko epea baino lehen —Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egindako beste deialdiren baten barruan— betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatu bada, aski izango da horrekin, eta ez da berriro egin beharrik izango.

2.5. N atalean, bi entitatek osatutako partzuergoek aurkeztu beharko dituzte proiektuak ezinbestean, eta horietatik batek behintzat garapenerako gobernuz kanpoko erakundea —GGKE— izan beharko du.

2.6. Partzuergoaren buru diharduen entitateak GGKE izan beharko du, eta deialdi honen 2. eranskinean ageri diren betebeharretatik sei bete, eta horiek zehaztu eta dokumentatu. Eskabideak aurkezteko epea baino lehen —Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egindako beste deialdiren baten barruan— betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatu bada, aski izango da horrekin, eta ez da berriro egin beharrik izango.

2.7. Deialdi honi dagozkionetarako, hauxe joko partzuergotzat: entitate-talde bat, dela iraunkorra, dela deialdirako ad hoc eratu, nortasun juridiko propioa izan gabe ere diru-laguntza ematea dakarten proiektu edo jarduerak burutu ahal izango dituen. Halakoetan, taldearen ordezkari edo ahalgabetatutakoak bakarrik izendatu beharko dute, oinarri hauetako betebeharrak guztiak betetzen dituen.

2.8. Deialditik kanpo geratuko dira, berariaz, honako hauek:

a— Arabako SEADen Lagunen Elkartea, lankidetzaz-hitzarmena sinatu baitu Gasteizko Udalarekin.

b— Deialdi honetara proposamenak aurkezteko epea bukatzen den egunerako Herritar Erakundeen Udal Erregistroan behar bezala izena emanda ez dauden edo dokumentazioa eguneratuta ez daukaten entitateak.

c— Estatuaren, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru aldundiaren eta aurrezki-entitateen menpeko erakunde eta zerbitzuak.

d— Enpresak eta irabazi-asmoa duten bestelako entitateak.

e— Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako egoeretakoren batean dauden entitateak.

f— Beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun-egoeran gauzatzea galarazten duten entitateak, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarteak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutenak, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 11.c) artikuluan xedatutakoaren ildotik.

### 3. L atala: Giza garapen lokaleko proiektuak

#### 3.1. Proiektuen betebeharrak

Betebehar hauek betetzen dituzten proiektuak gauzatu daitezela nahi du Gasteizko Udalak:

Eskatzaileak herrialde jasotzailean duen esperientzia	Gutxienez bi urte, proiektuen kudeaketan
Esperientzia, lankidetzan	Tokian tokiko proiektukidearekin batera bi proiektu behintzat kudeatu dituela egiaztatu beharko du eskatzaileak, edo gutxienez proiektuan zuzenean murgilduko den toki-erakundeetako batekin.
Gauzatzen hastea	Ezingo zaio ekin Gasteizko Udalak proiekturako ematen duen diru-laguntza gauzatzeari 2017ko urtarrilaren 1.a baino lehen.
Gauzatzeko epea	36 hilabete.
Gasteizko Udalaren urteko gehieneko diru-laguntza	120.000,00 euro, proiektuko.
Esku-hartzearen lurralde-eremua	Lokala. Lokaltzat esan nahi baita eskualdea baino txikiagoa den administrazio-barruti jakin batean burutzen dela proiektua, mugakide diren barrutietan edo eremu geografiko koherente batean, hala nola arro hidrografiko batean.
Tokian tokiko aktoreak	Erakunde publiko sektorial edo lokalen nahiz organizazio sozial lokalen partaidetza.
Identifikazioa eta formulazioa	Behar bezala identifikatuta eta formulatuta egon beharko dute proiektuek —helburuak, emaitzak, edukiak, jarduerak eta beharrezko diren ballabideak zehazten dituen metodologia baliatu beharko da—. Genero-analisisa barne hartu beharko du identifikazioak.
Generoaren arloan	Ekintza ezingo da oinarritu gizon eta emakumeen arteko tratu-desberdintasunean —edo halakorik sortu—, ezta emakumeen zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik eragin ere. Ekintzek ezingo dute desberdintasun handiagorik sortu, garatzen diren esparruan. Ekintzek ezingo dute desberdintasun handiagorik sortu, garatzen diren esparruan. Ekintzari jarraipena emateko bete beharreko baldintza izango da genero-ikuspegia txertatzeko bidean aurrerakuntza zehatzak egitea urtez urte.
Emaitza-mota	Proiektu guztiek lortu beharko dituzte emaitza nabarmenak; ez dira onartuko, aldiz, proiektuaren beraren baitako emaitza neurtezinak baino bilatzen ez dituzten proiektuak —prestakuntza, sendotzea, partaidetza—.
Adierazleak eta oinarritzko lerroa	Funtsezko adierazleen kopuru mugatu bat definituta eduki beharko da; adierazle argiak, emaitzei dagokienez, eta neurtzeko modukoak. Bereziki, adierazle nagusi bat definitu beharko da, esanguratsua eta soila, herritarrei emaitzak komunikatzeko baliatu ahal izango dena. Adierazleek ez dute jardueren azalpen hutsak izan beharko —“zer egingo den”—, baizik eta jarduerekin lortu nahi diren benetako emaitzak azaldu beharko dituzte —“zer lortu nahi den”—.
Inplikazioa, Gasteiztik	Hiriko gutxienez kolektibo edo entitate batek egon beharko du inplikaturik hainbat urterako proiektu bakoitzean. Honelakoa izan ahal da inplikazio hori: - espezialista edo profesionalen borondatezko laguntza teknikoak, - truke aktiboak, Gasteizko kolektibo baten eta proiektuari lotutako kolektibo baten artean, - Gasteizko kolektibo horrentzako berariazko informazio-sistema.
Herritarrei proiektuari buruzko informazioa ematea	Informazio-materiala aurkeztu beharko da urtero, bereziki material grafikoa eta ikus-entzunezkoa, espezializatu gabeko publikoari informazioa eman eta komunikatzea ahalbidetuko duena.
Jarraipena eta ebaluazioa	Jarraipen-metodologiak definituta egon beharko du, eta hasierako jardueren programatuta. Ebaluazio-sistemak definituta egon beharko du, eta fase eta ekintza nagusiek programatuta.

### 3.2. L ataleko lehentasunak

Garapenerako Lankidetzaren Gida-planaren ildotik, lehentasun sektorial hauek ezartzen dira:

- a— Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea
- b— Ura eta saneamendua
- c— Ekonomia soziala eta solidarioa; bereziki, bidezko merkataritzarekin zerikusia duten ekimenak
- d— Ingurumena
- e— Esku-hartze sozialaren sektoreak, bereziki hiriko etorkin-kolektiboen jatorrizko herrialdeetan

f— Orobat joko dira lehentasunezkatzat gizon eta emakumeen arteko berdintasuna helburu nagusizat ez eduki arren, genero-ikuspegia modu egokian bere egin eta, modu eraginkorren, berdintasunaren helburua lortzeko bidean hobekuntzak dakartzatenak Proiektuen baremazio-taulan islatzen da lehentasun hori (3. eranskina).

g— Afrika lehenesten da, eta, horren ildotik, 1,05eko gehikuntza-koefizientea ezartzen, proiektuen baremazioan

### 3.3. Proiektuaren inguruko sentsibilizazioa eta komunikazioa

a— Alde batetik, gutxienez erreferentziatzko kolektibo bat izan beharko du GGKEak Gasteizen, zeinekin informazio-, sentsibilizazio- eta truke-lan zehatzagoa egingo baita, kolektiboaren beraren ezaugarriak aintzat harturik.

b— Sentsibilizazio- eta informazio-jarduera errazak egitea proposatu ahal izango du Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, bai proiektu bakoitzak bere aldetik, bai Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren arloko diru-laguntza jaso duten beste entitate batzuekin batera.

c— Bestalde, komunikazio-material grafikoa eta ikus-entzunezkoa sortu beharko dute proiektuek, kanal desberdinetara egokitzeko modukoa —udalaren web-orria, sare sozialak, informazio-saioak eta abar—. Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren esku utzi beharko da material hori, eta komunikazio-produktu zehatzak egin hala izango ditu hark.

## 4. N atala: Lankidetzaren-estrategia eta -programa berritzaileak

### 4.1. Kontzeptualizazioa

Deialdi honi dagokionez, uste dugu nazioarteko ekintza-estrategia batek esku hartzen duten aktore edo sareen arteko koordinazioa eta planifikazioa izan behar duela oinarri, eta arlo hauek batean helburu jakinak lortzera zuzenduta egon behar duela: giza garapena, sektore jakin batzuen bizi-baldintzen hobekuntza, pertsonen eskubideak gauzatu, aldeztu eta baliatu ahal izatea edo gizarte-desberdintasunak murriztea.

Era berean, uste dugu 'berrikuntza' hitzak esan nahi duela produktu, zerbitzu, prozesu, estrategia edo antolakuntza-modu berri bat garatu eta funtzionatzen jartzea, edo nabarmenki hobetzea, esku hartzen den ingurunean giza garapen iraunkorraren erronketakoren bati ekiteko asmoz, eta, hartara, parte hartzen duen populazioaren bizi-baldintzetan hobekuntza esanguratsu eta nabarmenen bat lortzea, esku-hartzea gauzatzen den aldi horretan.

### 4.2. Estrategia eta programen ezaugarriak

Nahiz eta zaila den alde aurretik definitzea nazioarteko ekintza-estrategiek izan behar dituzten ezaugarriak, eta are gehiago berrikuntza-programek izan behar dituztenak, pentsatzekoa da ezen, lankidetzaren tresna tradizionalak ez bezala, bereizgarri hauek batean izan dezaketela programa horiek:

– Hainbat aktore edo sareren helburu komunen inguruko lankidetzak, horien kokaleku geografikoa gorabehera.

– Lankidetzan tradizioz ez duten aktoreen partaidetza.

– Hainbat herrialdetan ekintza koherenteak gauzatzea, eta ez kokaleku bakarrean.

– Aldaketak, Iparraldeko eta Hegoaldeko organizazioen rol tradizionaletan.

– Hegoaldea – Hegoaldea lankidetzak-ekintzak, edo triangeluarrak.

– Ezagutza eta teknologiak transferitu, trukatu edo garatzea.

– Garapenerako ikerketa.

– Beste.

Nolanahi ere, atal honetan proposatzen diren ekimenek bete beharko dituzten gutxieneko betebeharrak definitzen dira:

4.3 N ataleko proposamenen betebeharrak

Partzuergoak aurkeztea	GGKE bat buru duen eta gutxienez beste entitate arabar bat kide duen partzuergo batek aurkeztu beharko du proiektua.
Partzuergoaren esperientzia	Partzuergo-buruak edo partzuergoko kideetako batek gutxienez bi urteko esperientzia eduki beharko du gutxienez proiektuaren xede den herrialdeetako batean, edo landuko den problematika edo sektorean.
Esperientzia, lankidetzan	Entitate eskatzaileak edo partzuergo-buruak truke- eta lankidetzaz aurrekariak izan beharko ditu gutxienez programan modu aktiboan inplikaturako nazioarteko entitateetako batekin.
Gauzatzen hastea	Ezingo zaio ekin Gasteizko Udalak proiekturako ematen duen diru-laguntza gauzatzeari 2017ko urtarrilaren 1.a baino lehen.
Gauzatze-aldia	36 hilabete
Gasteizko Udalaren urteko gehieneko diru-laguntza	100.000,00 euro, programa eta urteko.
Identifikazioa eta formulazioa	Behar bezala identifikatuta eta formulatuta egon beharko dute proiektuek — helburuak, emaitzak, edukiak, jarduerak eta beharrezko diren baliabideak zehazten dituen metodologia baliatu beharko da—. Genero-analisia barne hartu beharko du identifikazioak.
Emaitza-mota	Xede hauetakoren bat lortzen lagunduko duten helburu eta emaitzak proposatu beharko dituzte ekimen guztiek: <ul style="list-style-type: none"> <li>- pertsona eta kolektiboek beren eskubideak gauzatu, aldeztu eta benetan baliatzeko aukerak ematea,</li> <li>- desberdintasunak murriztea,</li> <li>- giza garapenean laguntzen duten sektore edo organizazioen ahalmenak sendotzea.</li> </ul>
Generoaren arloko betebeharrak	Ekintza ezingo da oinarritu gizon eta emakumeen arteko tratu-desberdintasunean —edo halakorik sortu—, ezta emakumeen zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik eragin ere. Ekintzek ezingo dute desberdintasun handiagorik sortu, garatzen diren esparruan. Emakumeen ahalduzera edo gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako neurriak jaso beharko ditu proiektuak. Ekintzari jarraipena emateko bete beharreko baldintza izango da genero-ikuspegia txertatzeko bidean aurrerakuntza zehatzak egitea urtez urte.
Adierazleak eta oinarritzko lerroa	Funtsezko adierazleen kopuru mugatu bat definituta eduki beharko da; adierazle argiak, emaitzei dagokienez, eta neurtzeko modukoak. Bereziki, adierazle nagusi bat definitu beharko da, esanguratsua eta soila, herritarrei emaitzak komunikatzeko baliatu ahal izango dena. Adierazleek ez dute jardueren azalpen hutsak izan beharko —“zer egingo den”—, baizik eta jarduerekin lortu nahi diren benetako emaitzak azaldu beharko dituzte —“zer lortu nahi den”—.
Inplikazioa, Gasteiztik	Partzuergoko entitate arabarren funtzioak argi eta garbi definituta daude. Programa edo estrategiarekin zuzenean zerikusia duten jarduerak definituta eta programatuta daude, Gasteizen.
Herritarrei proiektuari buruzko informazioa ematea	Informazio-materiala aurkeztu beharko da urtero, bereziki material grafikoa eta ikus-entzunezkoa, espezializatu gabeko publikoari informazioa eman eta komunikatzea ahalbidetuko duena.
Jarraipena eta ebaluazioa	Jarraipen-metodologiak definituta egon beharko du, eta hasierako jarduerak programatuta. Ebaluazio-sistemak definituta egon beharko du, eta fase eta ekintza nagusiek programatuta.



Bi ataletarako alderdi komunak

#### 5. Nolako diru-laguntzak emango diren

5.1. Diru-laguntza gisa emango dira laguntzak, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko ordenantzan —2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.—, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta aplikagarri diren gainerako lege-arauetan xedatutakoaren ildotik.

5.2. Ordainketak urtekoak izango dira, eta oinarri hauetan aurreikusten diren justifikazio-be-tebeharrak bete ondoren egingo dira.

5.3. Oinarri hauen 1. puntuan atalez atal adierazi direnak izango dira Gasteizko Udalak proiektuetarako emango dituen gehieneko diru-laguntzak.

5.4. Beste finantza-iturri batzuetatik jasotako diru-kopuruak —eskabidea egiten duen organizazioak, proiektua gauzatuko duenak nahiz beste entitate batzuek jarria izan— gutxienez proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 15ekoa izan beharko du.

5.5. Deialdira aurkezten dituzten ekintzek beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu, nazional nahiz nazioartekoren baten diru-laguntzarik jaso duten zehaztu beharko dute organizazioek, eta, hala bada, horien zerrenda aurkeztu, zenbatekoak eta xedeak adieraziz, diru-laguntzak ematean bikoiztasunik gerta ez dadin eta baliabideak ahalik eta modurik egokienean esleitu daitezzen.

5.6. Proiektu bera bideratzeko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional nahiz nazioartekoren batek emandako diru-laguntzarik jasoz gero, udalak emandako diru-laguntza aldatu ahal izango da.

5.7. Diru-laguntzen arloko arau-hausteei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntza eta Laguntzei buruzko Ordenantzan eta aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoa izango da zigortzeko erregimena.

#### 6. Zer-nolako gastuak egin ahal izango diren diru-laguntzen kontura

6.1. Diru-laguntzak ezingo dira baliatu 2017ko urtarrilaren lehena baino lehenagoko gastuak ordaintzeko.

6.2. Ematen diren diru-laguntzak honelako gastuak ordaintzeko baliatu ahal izango dira: higiezinak edo azpiegiturak eraiki edo konpontzea; materialak, hornigaiak eta tresneria nahiz beste ekoizpen-aktibo batzuk erosi eta garraiatzea; azterlan teknikoak; langileak; trebakuntza eta prestakuntza; Gasteizko sentsibilizazio-ekintzak, eta GGKE eskatzailearen nahiz proiektukide lokalaren zeharkako kostu edo funtzionamendu-kostuak.

6.3. Aparteko kasuetan bakarrik baliatu ahal izango da diru-laguntza lur sailak edo bestelako ondasun higiezinak erosteko; halakoetan, gainera, argi eta garbi egiaztatuta beharko da haiek erakunde publiko edo komunitario baten esku geldituko direla, eta gutxienez hamar urtez erabiliko dela proiektuaren helburuetarako.

6.4. Proiektuak gauzatzeko beharrezko diren azterlan teknikoei dagozkien gastuak ezingo dira izan diru-laguntzaren ehuneko 8tik gorakoak. Azterlan tekniko beharrezkotzat bideragarritasun orokorra bermatua duen proiektu baten alderdi partzialei dagozkienak joko dira, hala nola elementu txikiagoen taxutze arkitektoniko edo teknikoari, gauzagarritasun ekonomikoaren azterlanei eta besteri dagozkienak. Azterlan horiek egin ondoren ikusten bada proiektuaren parte bat zertzea ezinezkoa dela, dena delako GKEak jakinaren gainean jarri beharko du Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, eta hark behar diren neurriak proposatuko ditu; diru-laguntza osoa nahiz haren parte bat itzularaztea ere erabaki ahal izango du.

6.5. Lankidetzan diharduten atzerriratuen gastuak ere estali ahal izango dituzte diru-laguntzek. Atal hori, ordea, ezingo da izan diru-laguntzaren ehuneko 20tik gorakoa.

Halakoetan, kontzeptu horretara bideratzen den diru-laguntzaren ehunekoa zehazteko, honako hauek hartuko dira aintzat: atzerriratuak adituak diren ala ez, zein zeregin hartzen dituzten beren gain eta proiektuan duten benetako dedikazioa.

6.6. N atalean, truke-jarduerei eta sareko lanari dagozkien gastuak estali ahal izango dituzte diru-laguntzek, edozein delarik ere egiten diren lekua, gehienez ere urteko diru-laguntzaren ehuneko 40ra arte. Nolanahi ere, partida horiek bereziki azalduta eta justifikatuta egon beharko dute.

6.7. Sentsibilizazio-jarduerek sortutako gastuei aurre egiteko ere baliatu ahal izango dira diru-laguntzak —gehienez diru-laguntzaren ehuneko 4, L atalean, eta ehuneko 3, aldiz, N atalean—, baldin eta proiektuaren txostenean eta aurrekontuan zehaztuta badaude. Gastu horien artean, proiektua gauzatzearekin zuzenean zerikusia duten pertsonen Gasteizera egindako bisitei dagozkien gastuak sartu ahal izango dira, atzerriratuenak izan ezik.

6.8. Diru-laguntzetan ez da proiektuaren azken ebaluaziorako partidarik sartuko. Hala ere, “aribideko” —proiektua gauzatu bitartean egiteko— ebaluazio bakarrerako partida bat sartu ahalko da bigarren eta hirugarren urteko aurrekontuan. Hori ezingo da diru-laguntza osoaren ehuneko 3tik gorakoa izan. Partida hori benetan erabiltzea, eta programatzen den unea, ebaluazioa egiteko beharraren baldintzaren menpe jar daiteke (proiektua hobetu edo berbideratzeko), eta beste erabilera bat aurreikusiko da hori egitea beharrezkoa ez denerako.

6.9. Proiektuaren administrazioari dagozkion zeharkako gastu edo funtzionamendu-gastu orokorrak honela definitzen dira: diruz lagundutako jarduerari zuzenean egotzi ezin zaizkion gastuak izan arren entitate onuradunak hura burutzeko ezinbesteko dituen gastu orokor eta administratiboen —entitatearen beraren mantentze-gastuak (energia elektrikoa, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa eta aholkularitza), informatika, mantentze-lan orokorrak, segurtasuna eta ikuskapena— zati proportzionala. ...

6.10. Oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraiki zentzuzko den neurrian egotzi beharko dizkio kostu horiek diruz lagundutako jarduerari entitate onuradunak, eta, betiere, kostu horiek jarduera burutzen deneko aldiari dagozkion neurrian.

6.11. Udalaren diru-laguntzari egozten zaizkion zeharkako kostuak ezingo dira izan haren ehuneko 12tik gorakoak, kontuan izanik:

a— Bazkide lokalaren zeharkako gastu edo funtzionamendu-gastuetarako, gehienez ere laguntzaren ehuneko 5 baliatu ahal izango da.

b— Entitate eskatzailearen zeharkako gastuetarako gehienez ere laguntzaren ehuneko 7 baliatu ahal izango da.

c— Proiektuaren jarraipen-sistemaren konplexutasunaren arabera finkatuko dira biak.

## 7. Aurkeztu beharreko agiriak

7.1. Eskabidea —1. eranskineko eredu ofiziala baliatuz—, partzuergo-buru den organizazioaren legezko ordezkariak izenpetuta.

7.2. Partzuergo-buruak egitura, gaitasuna eta jarduera izateari dagozkionez deialdi hone-tan galdatzen diren gutxieneko betekizunak —2. eranskinean zehazten dira— betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa. Baldin eta entitateak lehendik aurkeztu badu dokumentazio hori 2016an —Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak ebaluatutako beste deialdi baten baitan—, aski izango da zirkunstantzia hori adierazten duen entitatearen beraren egiaztagiria aurkeztea.

Orobat onartuko da dokumentazio hori bereiz aurkeztea, diru-laguntza deialdiak egin aurretik, hartara, behin Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak ontzat emanez gero, hala jasota gera dadin eta aurkeztutaz jo daitezen zerbitzu horrek ebaluatzen dituen 2016ko deialdi guztietarako.

7.3. Proiektua aurkezteko formularioa, eredu ofiziala baliatuz, honako hauek adierazten direlarik:

a— Entitate eskatzailearen datuak.

b— Proiektua nola identifikatu eta formulatu den argitzen duen informazio xehatua (proiektuak identifikatu eta formulatzeko diru-laguntzarik jaso ez den kasuetan bakarrik):

– Horretaz arduratu den taldea.

– Identifikatu eta formulatzeko erabilitako metodologiaren azalpen xehatua.

– Egindako jardueren xehetasunak.

– Egindako bilera eta lantegiei buruzko dokumentazioa.

c— Proiektuari buruzko datuak:

– Egoeraren, aktoreen eta arazoen erabateko analisia.

– Plangintzaren matrizea: helburuak, emaitzak, adierazleak, egiaztatzeko iturriak, jarraipen- eta ebaluazio-sistemaren deskribapena.

– Jarduera-plan zehatza, non zehazten diren behar diren baliabideak eta kudeaketa- eta kontratazio-motak.

– Gastuen aurrekontu zehatza, dibisa lokalean eta eurotan adierazita, jarriko diren baliabide lokal edo propioak, eta beste erakunde batzuei eskatutako edo haiengandik jasotako diru-laguntzak. Gainera, formatu elektronikoan (kalkulu-orri batean) aurkeztu beharko da aurrekontua. Aurrekontua eurotan kalkulatzeko, moneta nazionalaren, dolarraren eta euroaren arteko truke-balioa erabiliko dira, zehazki, deialdia ALHAOn argitaratzen den eguneko truke-balioa. Behar izanez gero, hurrengo urteetarako aurrekontuak kalkulatzeko zein inflazio-tasa erabili den zehaztu beharko da, eta xede-herrialdean azken urteetan izan den inflazio-tasa kontuan hartuz justifikatu.

– N atalean, gastu batzuk eta besteak zein herrialdeetan egingo diren zehaztu beharko da, eta bigarren eta hirugarren urterako partida generikoak —banakatu gabeak— sartu ahal izango dira, partzuergoaren edo inplikaturako sarearen geroko erabakien mende dauden gastuetarako, gehienez urteko diru-laguntzaren 30era arte. Nolanahi ere, partida horiek banakatu egin beharko dira bigarren eta hirugarren urteko diru-laguntzak ordaintzekotan.

– Erabiliko diren baliabide lokal edo propioei buruzko dokumentazioa, eta beste erakunde batzuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntzei buruzkoa.

– Egindako azterlan tekniko edo ekonomikoak, baita bideragarritasun soziokulturalari buruzko azterlan osagarriak ere.

– Aktore batzuek eta besteek hartutako konpromisoen dokumentazioa.

d— Urte bakoitzean lortu beharreko gutxieneko emaitzen proposamena —nahitaezkoak izango dira proiektuarekin jarraitzeko—. Bigarren eta hirugarren ikasturteei dagozkien emaitzak berrikusterik izango da.

7.4. N atalerako, gainera:

a— Partzuergoa osatzen duten entitateei buruzko oinarrizko informazioa, baita proiektuan inplikaturako bestelako entitate edo kolektibo lokalei buruzkoa ere, izanez gero.

b— Partzuergo edo sarearen kudeaketa-sistemari, antolakuntza- eta koordinazio-sistemari eta zereginen banaketari buruzko informazioa. Organizazioek izenpetutako konpromiso-erabakia erantsi beharko da, proiektuan esku-hartzeko nahia egiaztatze aldera.

7.5. Eskatzaileak ez zerga-zorrik ez Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

7.6. Bankua-erakundea eta kontu-zenbakia (IBAN), diru-laguntza bertan ordaintzeko.

7.7. Informazio gehiago eskuratze aldera, beste agiririk ere eskatu ahal izango du Udalak, aurkeztutako proiektuaren zer-nolakoak direla eta beharrezkotzat jotzen badu.

7.8. Eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu beharko du dokumentazioa entitate eskatzaileek. Gerora agiririk aurkezten bada, ez da kontuan hartuko proiektua balioestean, zerbitzuak berariaz eskatutakoa izan ezean.

## 8. Eskabideak aurkeztea

8.1. Gasteizko Udalaren erregistroan —Argibide eta Erregistro Bulegoan (San Antonio kalea, 10) nahiz gizarte etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoetan— aurkeztu ahal izango dira diru-laguntzak eskuratzeko eskabideak, zuzenean, edo erregistro horretara bidali, dela posta ziurtatuz, dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako moduetakoren bat baliatuz.

8.2. Epea: Bi atalerako: iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2016ko azaroaren 21era arte, egun hori barne.

8.3. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren eskabideak bakarrik onartuko dira.

## 9. Proiektuak balioesteko irizpideak

9.1. 3. eranskinean ageri den baremazioaren arabera balioetsiko dira L atalera aurkezten diren proposamenak, eta 4. eranskinean ageri denaren arabera N atalera aurkezten direnak.

9.2. Bi ataletan, Afrikan egitekoak diren proiektuei 1,05eko gehikuntza-koefizientea aplikatuko zaie baremazioan, hau da, baremazio-taularen arabera lortutako puntuazioa bider 1,05 egingo da.

9.3. Eranskinetan izartxo batez (\*) markatuta ageri diren alderdiak betebehartzat jotzen dira; beraz, horietakoren batean zero puntu ateraz gero, proiektua baztertu egingo da.

9.4. Baldin eta irizpideari "bidezkoa bada" oharra gehitu bazaio, bere proiektuaren kasuan beharrezkotzat jotzen duen ala ez zehaztu eta argudiatu ahal izango du eskatzaileak.

9.5. Horrez gain, eskatzaileak uste badu —edozein arrazoi dela medio— aurkezten duen proiektuaren kasuan ez dela bidezko adierazitako irizpideetakoren bat edo beste aintzat hartzea, argudiatu egin beharko du, kontuan har ez daitezzen.

9.6. Eskatzailearen argudioak kontuan hartu eta balioespen teknikoan irizpide jakin bat bidezkotzat jotzen ez bada, ez da aintzat hartuko horri dagokion puntuazioa. Horrenbestez, bidezkotzat jotzen diren irizpideak aintzat harturik gehienez eskura daitezkeen puntuen gainean lortzen den ehunekoa izango da proiektuaren puntuazioa, kasu guztietan.

9.7. Baldin eta proiektu batek lortutako puntuazioa ehuneko 50etik beherakoa bada, ez du diru-laguntzarik jasoko.

9.8. Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak ebaluatuko ditu proiektuak, eta, behar izanez gero, kanpoko erakunde espezializaturen baten aholkularitza eskatu ahal izango du.

9.9. Proiektuen bideragarritasun teknikoa neurtzeko, behar izanez gero, udal zerbitzu eskudunen nahiz espezializatutako erakundeen laguntza eskatuko ahal izango da. Bereziki, uraren eta saneamenduaren arloko proiektuen alderdi teknikoak Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA) udal enpresako teknikariek ebaluatuko dituzte.

9.10. Proiektuak aztertu ondoren, eta behin betiko puntuazioa esleitu aurretik, elkarrizketa egingo da eskabidea egin duten entitateekin, proiektuei buruzko informazio zabalagoa eman ahal izan dezaten.

9.11. Honako hauek osatuko duten batzordeak egingo du diru-laguntzak emateko proposamena:

a— Jaione Aguirre andrea, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria,

b— Yolanda Iraeta andrea, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko teknikaria,

c— Juan José Estévez, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko teknikaria,

d— Aitor Gabilondo, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko teknikari arduraduna.

#### 10. Deialdia nola eta noiz ebatziko den

10.1. Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio deialdia ebatzea.

10.2. Diru-laguntzak eman nahiz ukatzeko ebazpenetan honako hauek zehaztuko ditu Udalak:

a— ekitaldi bakoitzerako —2017, 2018 y 2019— onetsitako ekarpenaren zenbatekoa,

b— diru-laguntza ordain dadin zer aldakuntza egin behar diren, beharrezko izanez gero.

10.3. Gehienez hiru hilabeteko epean ebatziko da deialdia, atal bakoitzerako proiektuak aurkezteko azken egunetik kontatuta. Epe horretan berariaz ebazten ez diren eskabideak ezetsizat jo beharko dira.

10.4. Eskutitz bidez emango zaie deialdiaren ebazpenaren berri eskatzaileei, eta orobat jakinaraziko horrek agortu egiten duela administrazio bidea, eta, berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsioa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango dute administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsioa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik. Era berean, ALHAOn eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen argitaratuko da.

10.5. Diru-laguntza eman zaiola jakinarazten zaiolarik entitate eskatzaileari, baldin eta ondorengo 15 egunetan ez badio hark berariaz uko egiten, onartu egin duela esan nahiko du.

#### 11. Diru-laguntza jasotzen duen entitateak zein konpromiso hartu beharko dituen

11.1. Diru-laguntza jasotzen duen organizazioak —legezko ordezkariaren bitartez— hitzarmena sinatu beharko du Gasteizko Udalarekin, gehienez hilabeteko epean, jakinarazpenaren egunetik, eta bertan jasota utziko da zertarako den diru-laguntza zehazki eta zein diren urte bakoitzean lortu beharreko gutxieneko emaitzak, baita laguntza jaso duen ekintzaren jarraipena egiteko bitartekoen zer-nolakoak eta maiztasuna ere.

11.2. Hitzarmena izenpetzen duelarik, konpromiso hauek hartuko ditu diru-laguntza jaso duen organizazioak:

a— Inplikaturako populazioari eta gainerako aktore lokal nahiz nazioartekoei Gasteizko Udalak emandako diru-laguntzari esker lortutako funtsen jatorriaren, zenbatekoaren eta xedearren gaineko informazioa ematea.

b— Udalaren lehen ordainketa jasotzen duelarik, gehienez bi hilabeteko epean hastea proiektua gauzatzen.

- c— Proiektua benetan zein egunetan hasi den gauzatzen jakinaraztea Udalari.
- d— Diru-laguntza ematea ekarri duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera bideratu edo jokabidea bereganatzea.
- e— Udalak ematen dizkion funtsak ahalik eta seriotasunik handienarekin baliatzea, eta dagozkion betebeharrak oro betetzea, txostenak aurkezteari nahiz gastuak justifikatzeari dagokionez, bai oinarri hauetan zehazten direnak, bai hitzarmenean zehazten direnak.
- f— Berariaz eskatzea baimena Gasteizko Udalari baldin eta hasiera batean aurkeztutako proiektuan aurreikusitako ekintza gauzatzeko orduan aldaketaren bat egiteko premia dagoela uste badu.
- g— Herritarrei proiektuaren bilakaerari buruzko informazioa helarazten laguntzea udalari eta Garapenerako Kontseiluari —baterako informazio- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzeko eskatu ahal izango die Udalak diru-laguntza jaso duten organizazioei—.
- h— Agiriak egiaztatzeko ekintzen mende jartzea, baita Gasteizko Udaleko Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitako mende ere, eta horiei nahiz Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari eskatzen duten informazioa ematea.
- i— Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu nahiz eskuratu gero, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari jakinaraztea. Hain zuzen ere, jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, nolana ere, jasotako funtsak zertarako baliatu diren justifikatu aurretik.
- j— Jasotako funtsak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, kontrol- eta egiaztapen-jarduerak egin behar izatea gerta litekeen bitartean.
- k— Diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen ez badira funtsak itzultzea, eta, era berean, jardueraren kostua baino gehiago eskuratu bada, soberakoa itzultzea. Itzuli beharreko diru-kopurua zehazteko —jasotako guztia edo zati bat—, proportzionaltasun-irizpidea aintzat hartuko da.
- l— Diru-laguntza ematen zaion entitate orok udal-finantzaketaren berri eman beharko du, Gasteizko Udalaren logotipoa jarriz egiten dituen inprimakietan —kartelak, eskuorriak, informazio-orriak eta abar—, oroitzapen-xafletan, hedabide elektroniko eta ikus-entzunekoetan nahiz idatzizko hedabideetan argitaratzen dituen iragarkietan.
- m— Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, gaztelania eta euskara, Euskal Autonomia Erkidegoan diru-laguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, diru-laguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere —EAEan burutzen direlarik— elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

## 12. Diru-laguntzak nola ordainduko diren

12.1. Justifikatu aurretik ordainduko da urteko lehen diru-laguntza, ordainketa aurreratu gisa. Ordainketa bakar batean egingo da, esleipenaren ebazpena eman eta dena delako hitzarmena sinatu ondoren, eta ez da beharrezkoa izango inongo bermerik jartzea.

12.2. 2018 eta 2019ko ekitaldiei dagozkien ekarpenen ordainketak baldintzatuta egongo dira, 13., 14. eta 15. klausuletan zehazten diren betebeharrak bete beharko baitira. Aldi bakarrean egingo da ordainketa horietako bakoitza.

12.3. Diru-laguntza jasoko badu, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak izan beharko ditu dena delako entitateak, baita udal ogasunarekikoak ere.

12.4. Ez da diru-laguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste diru-laguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako diru-laguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

### 13. Diruz lagundutako ekintzen jarraipena

13.1. Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak ekintza gauzatzearen inguruko narrazio zein finantza txostenak igorri beharko ditu.

13.2. Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak finkatutako eredia baliatuz egin beharko dira txostenak.

13.3. Sei hilean behin egin beharko dira proiektuen txosten narraitiboak. Lehen txostena zenbait urtetarako diru-laguntzari dagokion hitzarmena sinatu eta sei hilabetera aurkeztuko da.

13.4. Urteko diru-laguntza bakoitzerako justifikazio txosten bereziak aurkeztu beharko dira. Justifikazio horiek partzialak izan ahalko dira, urteko diru-laguntzaren ehuneko 100 osatu arte.

13.5. Hurrengo ekitaldiko diru-laguntza jasotzeko urteko diru-laguntzaren ehuneko 80 justifikatu behar denez, justifikazio hori lehenbailehen aurkeztea komeni da, ordainketa errazte aldera.

13.6. Izandako gastuak justifikatze aldera, jatorrizko fakturak erantsi beharko zaizkio txosten ekonomikoari, edo, bestela —Espainiatik kanpo egindako gastuetarako bakarrik—, horien fotokopiak, erakundearen legezko ordezkariak izenpetutako egiaztatze-agiriarekin batera. Hain zuzen ere, proiektuan eta finkatutako kontzeptuetan egindako inbertsioak justifikatuko dira hartara.

13.7. Diru-laguntza jasotzen duen entitatea gutxienez urtean behin bilduko da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin, proiektuaren bilakaera balioesteko.

13.8. Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak proiektua gauzatzen ari den lekura jarraipen-bisitarik eginez gero, diru-laguntza jaso duen entitateak erraztasunak eman beharko dizkio bertara heltzeko, proiektuarekin zerikusia duten pertsonekin egoteko eta gauzatzeari buruzko informazioa eta agiri tekniko, administratibo eta finantzarioak eskuratzeko.

### 14. Proiektuarekin jarraitzeko betebeharrak

14.1. Bigarren eta hirugarren urtean proiektuarekin jarraitzea baldintzatuta egongo da, aurretik definitutako urteko gutxieneko emaitzak lortu beharko baitira. Lau esparrutan definitu beharko dira aurrerapen horiek

- proiektuaren eremu nagusian,
- generoaren arloan,
- kolektibo gasteiztarraren edo partzuergoko kide den entitate arabarraren inplikazioari dagokionean,
- garapenerako agintari, plan edo ekimen lokalekiko koordinazioari dagokionean —L atalean bakarrik—.

14.2. Urteko gutxieneko aurrerapenen proposamena aurkezten den proiektuan sartu beharko da, nahiz eta urtez urte berrikusi ahal izango den.

14.3. Bigarren eta hirugarren urteetarako onetsitako diru-laguntza ordainduko bada, bete-behar hauek bete beharko dira:

- 13 klausulan adierazten den jarraipen- eta justifikazio-txostena aurkeztea.
- Definitutako gutxieneko emaitzetatik zein lortu diren informatzea.

14.4. Adierazitako dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkezten delarik, eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak aldeko txosten teknikoa egiten, dena delako diru-kopurua ordaintzeko izapideei ekingo zaie.

#### 15. Diru-laguntzak justifikatzea

15.1. Justifikazioko kontua baliatuko da proiektuak justifikatzeko —gastu-egiaztagiriak aurkeztu beharko dira—.

15.2. Diru-laguntza eskatzean aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da —ez Gasteizko Udalak emandako diru-kopurua bakarrik—, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren ildotik. Gasteizko Udalez gain proiektua finantzatzen laguntzen duten beste batzuei dagozkien gastuak egindako gastuen zerrenda xehatua sartu beharko dira —ikus hurrengo puntua—, nahiz eta ez den beharrezkoa izango horiei dagozkien jatorrizko dokumentazioa aurkeztea.

15.3. Egindako gastuen zerrenda zenbakiduna agertuko da justifikazioko kontuan, onetsitako aurrekontuko partiden hurrenkeran, eta jatorrizko dokumentazioa erantsi beharko zaio. Eredu honi jarraiki egin beharko da zerrenda: faktura- edo agiri-zenbakia, entitate ordaintzailea —dela eskatzailea, dela tokian tokiko proiektukidea—, data, partida, kontzeptua, entitate hornitzailea, zenbatekoa herrialdeko dirutan, zenbatekoa eurotan. Zerrenda horri beste agiri hauek erantsi beharko zaizkio, proiektuaren zenbateko osora iritsi arte: nominak, egiaztagiriak eta jatorrizko fakturak edo, bestela, horien fotokopiak, entitatearen legezko ordezkariak izenpetutako egiazkotasun-agiriarekin edo balio juridikoa duen beste edozein agirirekin batera. Espainian egindako gastuei dagokienez, jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, konpultsatzeko.

15.4. Hala dagokienetan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziako lehendakariaren 2011ko urriaren 31ko 18.430/2011 ebazpena aplikatuko da, horren bitartez onetsi baitziren garapenean laguntzeko hitzarmen, proiektu eta ekintzetarako ematen diren diru-laguntzen kudeaketa-, jarraipen- eta justifikazio-arauak —2011ko azaroaren 23ko BOE, 282. zk.—.

15.5. Behar bezala egiaztatzen diren salbuespen-egoeretan, justifikatzeko beste modu batzuk onartu ahal izango dira, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuaren 39. artikulua ildotik.

15.6. Txosten narratiiboak eta justifikazio-oroitadazkiak Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak finkatutako ereduari jarraiki egin beharko dira.

#### 16. Proiektuen ebaluazioa

16.1. Proiektu orok ebaluazio-sistema definitu eta programatu bat izan beharko du.

16.2. Gasteizko Udalaren diru-laguntzaren kontura proiektuaren arribideko ebaluazio bat finantzatu ahal izango da, proiektua behar bezala garatzeko beharrekotzat jotzen delarik.

16.3. Proiektuaren kudeaketarako egokien gertatzen den unerako aurreikusi ahalko da arribideko ebaluazioa, eta programatzen den urterako diru-laguntzari dagokion zenbatekoaren erabilera alternatiboa zehaztu, atzeratzen bada ere. Beharrekotzat jotzen ez bada bertan behera utzi ahalko da ebaluazio hori.

16.4. Diru-laguntza jaso duen entitateak proposatzen badio, programatutako ebaluazio-jardueretan parte hartu ahal izango du Gasteizko Udalak.

16.5. Diru-laguntzan ez da proiektu edo programaren azken ebaluaziorako partidarik sartuko. Ebaluazio hori erakunde eskatzailearen edo tokiko proiektukidea den erakundearen zatiari egotzen bazaio, behin egindakoan Garapenean Laguntzeko Zerbitzura bidali beharko da nahitaez.

16.6. Udalak proiektuaren kanpoko ebaluazio bat (arribidekoa edo azkena) egin edo kontratatu ahalko du.



16.7. Kanpoko ebaluazioa programatzen bada, Gasteizko Udalak ardura duen GKEari jakinarazi beharko dio, gutxienez bi hilabete lehenago.

#### 17. Diru-laguntzak itzuli eta berandutze-interesak ordaintzea

17.1. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 38. artikulua eta lege horren araudiko 94.a betetze aldera, diru-laguntza itzultzeko eskatzen den kasuetan berandutze-interesen likidazioa galdatuko da.

17.2. Diruaren legezko interesari ehuneko 25 gehitzetik ateratzen dena izango da diru-laguntzen arloan aplikatuko den berandutze-interesa, salbu eta Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeak besterik ezartzen badu, eta administrazioak diru-laguntza ordaindu zuen unetik bertatik sortuko da, eta diru-laguntza itzuli beharra dagoela erabakitzen den arte jarraituko hazten. Diru-bilketak diraun bitartean, beste interes batzuk sortu ahal izango dira, zorra borondatezko aldian ordaindu ezean. Interesak sortzen diren aldia urtebetetik haragokoa bada, urteetako bakoitzeko interes-tasa aplikatuko da.

17.3. Diruaren legezko interesa urte horretako Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legean ezartzen dena izango da, eta, beraz, diru-laguntzen alorreko berandutze-interesa, legezko interes horri ehuneko 25 gehitzetik ateratzen dena.

#### 18. Konfidentziasun-klausula

Ematen dituzun datu pertsonalak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartu ahal izango direla jakinarazten dizu Gasteizko Udaleko Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Sailak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera —diru-laguntzak kudeatzea da fitxategi horien helburua—. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko duzu.



www.vitoria-gasteiz.org

### 1. eranskina: Eskabidea – Garapeneko lankidetzarako hainbat urterako diru-laguntzen 2016ko deialdia.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila  
Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

Izen-deiturak

NAN zk.  Kargua

Entitatea  IFK

Entitatearen helbidea  P.K.  Herria

Telefonoa  Mugikorra  Faxa  Posta elektronikoa

Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena ematearen data  eta zenbakia

#### ADIERAZTEN DU:

Bere ustez betetzen dituela **Garapenerako lankidetzarako hainbat urterako diru-laguntzak emateko 2016ko deialdiaren** baitan — **atala**— onuradun izateko baldintzak, eta

#### ESKATZEN DU:

\_\_\_\_\_ euroko diru-laguntza eman dakiola 2017rako, \_\_\_\_\_ eurokoa 2018rako, eta \_\_\_\_\_ euroko 2019rako, proiektu honetarako:  
Horren kostua, guztira, \_\_\_\_\_ eurokoa da —galdatutako agiriak eransten dira, eta benetakoak direla egiaztatzen—.

#### AITORTZEN DU:

Eskabidea egiten duen pertsona edo entitatea ez dagoela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotzen diren debeku-egoeretako batean ere. Era berean, baimena ematen dio udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko —bestela, Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu—.

Vitoria-Gasteizen, \_\_\_\_\_

Izenpea eta entitatearen zigilua, jatorrizkoak

Eransten diren agiriak:

1.-

2.-

3.-

Harremanetarako:

Helbidea

Posta elektronikoa  Telefonoa  Faxe

Diru-laguntzak emateko deialdi hau kudeatzea beste helbururik ez duten fitxategietan sartuko dira zure datu pertsonalak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera.

2. eranskina

Gasteizen egitura, gaitasuna eta jarduerak izateari dagokion baldintza

- a) Irizpideak beteko badira, gutxienezkotzat jotzen diren balio horietara iritsi beharko da.  
 b) "Egiaztatzeko moduak" zutabearen adierazten diren agirietakoren bat aurkeztuz egiaztatu beharko da hori.  
 c) Irizpidea betetzen bada, puntu bat lortuko da. Irizpidea betetzen ez bada —edo egiaztagiririk aurkezten ez bada—, ez da punturik emango.  
 d) Bazter utziko dira sei puntu baino gutxiago lortzen dituzten entitate eskatzaileak, egiturari, gaitasunari eta Gasteizen jarduteari dagokion baldintza ez duela betetzen ulertuko baita.

Irizpideak	Gutxienez	Unitatea	Egiaztatzeko moduak
Probintzian bazkideak izatea	50	bazkide	Entitatearen egiaztagiria, probintzian dituen bazkideen kopurua jasotzen duena.
Hirian jendaurreko ordezkariak izatea	1	jendaurreko egoitza	Egoitzaren helbidea eta ordutegia jasotzen duen ziurtagiria (egiaztatu egingo da).
Funts propioak —kuotak eta dohaintzak—, 2015ean probintzian sortuak	6.000,00	euro	Auditoria, balantze ekonomikoa edo, horietan datu bereziak jaso ezean, horiei dagokien ziurtagiria, diruzainak izenpetuta eta adierazitako kontabilitate-agiri horietakoren bati erantsita.
Gasteizko bulegotik proiektuak kudeatzeko gaitasuna, eta esperientzia	2	azken bi urteetan kudeatutako proiektuak	Entitatearen ziurtagiria, non zehazten diren azken bi urteetan Gasteizko bulegotik kudeatu diren proiektuak, horien diru-kopuruak, proiektuak finantzatzen kide izan dituzten entitateak eta arduradunak, profesionalak nahiz boluntarioak izan.
Hirian teknikariak izatea	Batez bestekoa	kontrataturako lanaldia	Gizarte Segurantzako kotizazioaren ziurtagiriak, non ageri den kontratatutako pertsona horiek Araban ari direla kotizatzen.
Hirian boluntarioak izatea	5	boluntario	Eusko Jaurlaritzaren Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorrean egindako izen ematea, Araba Lurralde Historikoan. Edo boluntarioen aseguruia ordaindu izanaren egiaztagiria, non Araban aseguratu den boluntario kopurua agertuko baita.
Entitateak Hegoaldeko herrialdeetan 2015/01/01.az geroztik burutu dituen proiektuetan Gasteizko boluntarioek lekuan bertan eman duten laguntza	1	persona, hileko	Entitateak edo boluntarioak izenpetutako txosten laburra (orri bat edo bi), non profil pertsonala, laguntza eman zuen proiektua, tokia, aldia, zereginak, esperientziaren balorazioa eta beste azalduko baitira.
Hirian 2015/01/01.az geroztik egin diren sentsibilizazio-jarduerak publikoak	3	jarduera publikoak	Dokumentazio grafikoa, zabalkunde-materiala, galdetegiak, antolatzaileen egiaztagiria... Hedabideetan artikulua edo elkarrizketak agertu edo argitaratzea ez da jardueratzat joko, ezta informazio-buletinen zabalkundeak eta erakundearen publizitate-produktuak banatzea ere.
2015/01/01.az geroztik materialak bildu eta bidaltzeko nahiz bidezko merkataritzako produktuak saltzeko egindako kanpaina propioak	1	burututako jarduerak	Dokumentazio grafikoa, zabalkunde-materiala, galdetegiak, antolatzaileen egiaztagiria, emailen eskutitzak...
2015/1/1.az geroztik hezkuntza formalaren, ez formalaren nahiz informalkaren eremuan burututako jarduerak	15	jarduera-orduak	Esku hartu duten erakundearen egiaztagiria.
2015/01/01.az geroztik sare edo partzuergoen kanpaina edo programa egituratueta izandako partaidetza	15	jarduera-orduak	Sare edo partzuergoaren buru den entitatearen egiaztagiria.

## 3. eranskina

## L ataleko baremazio-taula

Izartxo (\*) batez markatutako kontzeptuetan zero puntu lortuz gero, proiektua lehiaketatik kanpo geldituko da.

Afrikan egitekoak diren proiektuen puntuazioa bider 1,05 egingo da

Zer		Gehienez	
		133	133
a) Aktoreak: gaitasuna eta harremanen kalitatea		22	
1. Eskatzailea		4	
GGKE eskatzailearen espezializazioa edo kudeaketa-ahalmena, proiektuaren sektorean		2	
GGKE eskatzailearen esperientzia, proiektuaren zonan		2	
2. Proiektukide lokala		6	
Proiektukide lokalaren espezializazioa edo kudeaketa-ahalmena, proiektuaren sektorean		1	
Proiektukide lokalaren esperientzia, proiektuaren zonan		1	
GGKE eskatzailearen eta proiektukidearen arteko lankidetzeta-aurrekariak, proiektuetan —agiri bidez frogatuak— (*)		2	
Proiektukidearen eta proiektuan parte hartuko duen populazioaren arteko lotura-maila, eta zuzeneko laneko aurrekari dokumentatuak		2	
3. Parte hartuko duen populazioa		4	
Parte hartuko duen populazioari buruzko informazioa eta datu bereziak		2	
Agiri bidez ziurtatzea proiektua berariaz dagoela zuzendua dela pobrezia-egoeran dagoen populazio-sektoreei edo ekonomikoki premiarik handiena dutenei, dela sektore bereziki ahul edo baztertuei (haurrak, ezinduek...)		2	
4. Agintari lokalak		3	
Hautetsi-erakunde lokal baten edo sektorean eskumena duen erakunde publiko baten abalak eta konprometitutako ekarpenak		3	
5. Organizazio lokalak		5	
Organizazio edo kolektibo lokalen —sozialak edo komunitarioak, emakumeenak, profesionalak...— partaidetza aktiboa, zehatza eta agiri bidez frogatua		5	
b) Proiektua		78	
6. Identifikazioa		8	
Ekintza gauzatzeko den testuinguruari buruzko informazioaren eta proiektuaren justifikazioaren kalitatea		2	
Zona horretan esku hartzen duten erakunde eta aktoreek definitutako garapen-plan lokalei, berreraikitze-planei eta besteri buruzko informazioa		2	
Proiektua nola identifikatu, planifikatu eta formulatu den argitzen duen informazioa, eta identifikazioaren izaera parte-hartzailea		2	
Genero-eraginaren azterketa proiektuan, eta hori negatiboa ez izatea, edo, bestela, neurri zuzentzaileak aurreikustea (*)		2	
7. Helburuak		10	
Zehaztutako lehentasunezko sektorea izatea		2	
Oinarrizko eta komunitate-mailako antolaketa eta partaidetza sustatzea		2	
Partaidetza sozialaren sustapena, erakundeek parte hartzen duten instantzia lokaletan —garapen-kontseiluak, sektore-mahaiak eta abar—		2	
Eskubideen ikuspegia proposamenean jasota		2	
Oinarrizko zerbitzuak martxan jartzea, halakorik ez zuen populazioarentzat		2	
8. Koherentzia		12	
Ekintzaren justifikazioaren, finkatutako helburu eta emaitzen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia (*)		2	
Proiektuaren metodologiari, egiteko diren ekintzei eta behar diren baliabideei buruzko informazio xehea, eta horien koherentzia eta detektatutako premia eta arazoei aurre egiteko efikazia		5	
Arriskuen balorazioa eta populazioaren ahuleziei aurre egiteko ekintzak sartzea		2	
Eskatutako dokumentazioa aurkeztea eta betekizunak betetzea, zuzenketa egin beharrik gabe		3	

9. Adierazleak eta jarraipena		7
Oinarriko ildoaren zehaztasuna eta emaitzak neurtzeko adierazleen baliozkotasuna, eta jarraipena egin eta emaitzen adierazle horiek egiaztatzeko sistemaren definizio-maila eta eraginkortasuna (*)	5	
Genero-adierazleen, oinarriko ildoaren eta egiaztatze-sistemaren baliozkotasuna	2	
10. Alderdi teknologikoak		10
Aurkeztutako proiektu teknikoaren bideragarritasuna (*)	4	
Testuingurura eta mantentzeko aukeretara egokitutako teknologiak erabiltzea	2	
Giza baliabideak: esperientzia, espezializazioa eta egokitasuna	2	
Proiektuko prozesuen eta etapen —ekoizpena, eraikuntza, finantzak, prestakuntza eta abar— antolakuntzaren metodologia	2	
11. Aurrekontua		11
Diru-kopuruak jarduerekin, emaitzekin eta onuradun-kopuruarekin duen erlazioa, proiektu-motaren eta helburuen arabera	4	
Aurrekontuen banakatzeko-, zehaztasun- eta programazio-maila, eta benetako prezioetara egokitzea	3	
Proiektu teknikoaren aurrekontuaren zehaztasuna (egoki bada)	2	
Besteren finantzaketa nahikoa da (*)	2	
12. Alderdi kulturalak		3
Ekintza planifikatzean, metodologia zehaztean eta garatzean herritarren faktore linguistiko, kultural, sozial, erlijiozkoak edo idiosinkrasiaren ingurukoak aintzat hartzea	3	
13. Generoaren arlokoak		15
Emakumeen bizimodua berariaz hobetuko eta haien behar praktikoei erantzuneko dieten ekintzak, bizitza pertsonala, famili bizitza eta lana uztartzen edo lan karga arintzen laguntzeko besteko diru-sarrerak edukitzeko aukera emango dietenak	3	
Emakumeek proiektuaren etapa guztietan parte har dezatela bultzatzeko eta erresistentziak gainditzeko estrategia, metodologia eta mekanismoak planteatzea (*)	2	
Emakumeek proiektuak sortzen dituen lanpostuetara sarbidea edukitzea (*)	2	
Proiektuak emakumeen interes estrategikoei laguntzea, egitura- edo kultur diskriminazioari aurre egiteko neurriekin	3	
Emakumeak ahaldunduzko ekintzak	3	
Berdintasun-politika edo -neurriak benetan sartzeko proiektuarekin zerikusia duten erakunde lokaletan nahiz organizazio sozial mistoetan	2	
14. Ingurumenaren ingurukoak		2
Ingurumen-eragina kontuan hartzea (bidezko bada)	2	
c) Bideragarritasuna eta iraunkortasuna		17
15. Garapen-ekimen lokalekiko artikulazioa		8
Proiektuaren planifikazioa benetan aplikatuko delako bermeak	2	
Onuradunen partaidetza aktiboa, proiektua proposatu, gauzatu eta kudeatzeko orduan	1	
Egitura eta tresna tekniko-administratibo lokalak eta plangintzaren arlokoak —bertako langile gaituek kudeatuko dituztenak— sortu edo sendotzea	5	
16. Iraunkortasuna		9
Martxan jarritako kudeaketa-sistemaren kalitatea —baliabideak eskuratzeko aukera, bideragarritasun finantzarioa, azpiegiturak mantentzeko lanak eta beste kontuak hartu beharko ditu— (bidezko bada)	5	
Etorbizuneko kudeaketa bermatuko duten transferentzia-mekanismoak, eskainiko diren zerbitzuekin zerikusia duten herritarrek parte hartzeko moduak barne (bidezko bada)	3	
Erakunde publikoen laguntza, proiektua bukatutakoan (bidezko bada)	1	
d) Gasteizeko lotura		16
17. Informazioa eta sentsibilizazioa		5
Publiko hartzailearen zehaztasun-maila, kalitatea eta erabiliko diren metodologia eta baliabideetara egokitzen diren (*)	3	
Izango diren informazio- eta komunikazio-baliabideen kalitatea eta egokitasuna	2	
18. Kudeaketa		2
GGKEak Gasteiztik kudeatzea proiektua	2	
19. Gasteiztik jasoko den laguntza tekniko eta finantzarioa		3
Gasteizko kolektiboan finantzaketa pribatua edo Gasteizko pertsona edo profesional-kolektiboan aholkularitza edo laguntza teknikoak	3	

20. Gasteizko pertsonen inplikazioa		3
Boluntarioen mobilizazioa, Gasteizen, proiektuarekin zerikusia duten jarduera edo ekintzetan	1	
Hirian dauden etorkinekin edo etorkin-kolektiboekin lankidetzan aritzea, beren jatorrizko lekuei eragiten dioten egoeretan (bidezko bada)	1	
Beste entitate edo kolektibo lokal batzuen inplikazioa, Gasteizko informazio- eta sentsibilizazio-programan	1	
21. Trukea		3
Gasteizko entitate eskatzailearen eta proiektuaren onuradun edo aktore lokalen artean lehendik elkartasun- edo truke-erlaziorik izatea	1	
Proiektuaren lekuko eta Gasteizko pertsona eta kolektibo sozial edo profesionalen arteko trukeak	2	

## 4. eranskina

## N ataleko baremazio-taula

Izartxo (\*) batez markatutako kontzeptuetan zero puntu lortuz gero, proiektua lehiaketatik kanpo geldituko da.

Afrikan egitekoak diren proiektuen puntuazioa bider 1,05 egingo da

Zer	Gehienez	
	100	100
<b>1. Aktoreen gaitasuna eta beren harremanen kalitatea</b>		<b>12</b>
Proiektukide lokalaren esperientzia eta kudeaketa-gaitasuna (*)	2	
Proiektuaren xedean zuzenean inplikaturako aktore publiko nahiz pribatu esperientziadun edo gaituen (*) partaidetza aktiboa	5	
Onuradun eta inplikaturako partaidetza aktiboa, proiektua proposatu, gauzatu eta kudeatzeko orduan	2	
Sektorean eskumena duen erakunde publiko baten abala	1	
Lankidetzaren eta sareko lanaren arloko aurrekariak, parte hartzen duten organizazioen eta inplikaturako populazioaren artean	2	
<b>2. Populazio onuraduna</b>		<b>6</b>
Proiektuaren zuzeneko nahiz zeharkako onuradunei buruzko informazio zehatza (*)	3	
Benetako ziurtasuna, proiektua berariaz pobrezia- edo bazterketa-egoeran dauden sektoreei, premiarik handiena dutenei edo bereziki ahulei zuzenduta dagoela (*)	3	
<b>3. Helburuak, emaitzak eta eragina</b>		<b>14</b>
Planteatzen diren helburu eta emaitzen zehaztasuna	2	
Proiektuak izan dezakeen eragina (*)	6	
Berariaz emakumeengan izan dezakeen eragina (*)	4	
Arriskuen balioespena	2	
<b>4. Esku-hartzearen identifikazioa</b>		<b>8</b>
Proiektua nola identifikatu, planifikatu eta formulatu den argitzen duen informazioa (*)	2	
Identifikazioaren izaera parte-hartzailea	2	
Identifikazioan genero-eraginaren azterketa sartzea eta, beharrezkoa bada, atzemandako eragin negatiboak zuzentzeko neurriak aurreikustea (*)	2	
Ekintza gauzatu den testuinguruari buruzko informazioaren eta proiektuaren justifikazioaren kalitatea	2	
<b>5. Proiektuaren kalitate teknikoa</b>		<b>26</b>
Proiektua planifikatzeko matrizearen koherentzia: ekintzaren justifikazioaren, finkatutako helburu eta emaitzen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia (*)	3	
Egin nahi diren ekintzen bideragarritasun teknikoa, bidezko bada (*)	4	
Programaren metodologiari, egiteko diren ekintzei eta behar diren baliabideei buruzko informazio xehea, eta horien koherentzia eta detektatutako premia eta arazoei aurre egiteko efikazia	5	
Oinarriko ildoaren zehaztapena, eta emaitzen adierazleak nahiz proiektuaren jarraipena egin eta adierazleak egiaztatzen diren sistemaren baliozkotasuna (*)	3	
Giza baliabideak: esperientzia, espezializazioa eta egokitasuna	3	
Ekintza planifikatzean, metodologia zehaztean eta garatzean herritarren faktore linguistiko, kultural, sozial, erlijiozkoak edo idiosinkrasiaren ingurukoak aintzat hartzea (*)	2	
Ingurumen-eragina eta neurri zuzentzaileak kontuan hartzea (*)	2	
Aurreikusitako ekintzak generoaren arloko helburu eta emaitzetara egokitzea	2	
Eskatutako dokumentazioa aurkeztea eta betekizunak betetzea, zuzenketarik egin beharrik gabe	2	
<b>6. Emakumeen partaidetza, proiektuan</b>		<b>3</b>
Emakumeek proiektuan parte hartzeko mekanismoak: emakumeek proiektuaren etapa guztietan parte har dezatela bultzatzeko egoki diren prozedurak, kontziliatio-neurriak eta metodologiak planteatzea (*)	2	
Emakumeek proiektuak sortzen dituen lanpostuetara sarbidea edukitzea (*)	1	
<b>7. Aurrekontua</b>		<b>11</b>
Hasierako eskabidea zehaztutako finantzaketa-baldintza eta mugetara egokitzea	1	
Besteren nahikoa finantzaketa (*)	1	

Aurrekontuen banakatze- eta programazio-maila, benetako prezioetara egokitzea eta kostuen justifikazioa	4	
Jardueren kostuak emaitzekin eta eraginarekin duen erlazioa, proiektu-motaren eta helburuen arabera (*)	5	
<b>8. Iraunkortasuna</b>		<b>8</b>
Proiektuaren finantza-bideragarritasuna, diruz lagundutako ekintza gauzatu ondoren, bidezko bada (*)	2	
Erakunde publikoei laguntzea nahiz sareei jarraipena ematea, proiektua bukatutakoan (*)	2	
Behar diren kudeaketa-egituren jarraitutasuna bermatzea (*)	1	
Azpiegiturak mantentzeko lanak (*)	1	
Geroko kudeaketa bermatuko duten transferentzia-mekanismoak (*)	2	
<b>9. Partaidetza aktiboa, Gasteiztik*</b>		<b>8</b>
GGKEak Gasteiztik kudeatzea proiektua	1	
Proiektuaren finantzaketa pribatua, Gasteiztik edo Arabatik	1	
Arabako pertsonak edo entitateen partaidetza tekniko edo profesionala, esperientzia kontuan izanik	4	
Hiriko pertsona eta kolektiboen partaidetza soziala (*)	2	
<b>10. Sentsibilizazioaren ingurukoak</b>		<b>4</b>
Gasteizen argi eta garbi identifikatutako kolektiboei proiektuari buruzko informazio zehatza emateko sistema	2	
Izango diren informazio- eta komunikazio-baliabideen kalitatea eta egokitasuna	2	